

**Elkartasunaren aldeko apustua**

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 4.052 TONA  
JANARI BAINO GEHIAGO EMAN DITUZTE  
BEHARRA DUTEN FAMILIENTZAT URTEKO LEHEN  
SEIHILEKO HONETAN**

- Kopuru horrekin 2.446 pertsonak jan dezakete urte osoan.
- EROSKIren 460 saltoki berriz elkartuko dira ostiral eta larunbat honetan, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak (FESBAL) egindako Bilketa Handiaren elkartasun deialdira
- EROSKI joan deneko hogeitun urtean ari da FESBALEkin

Elorrio, 2017ko azaroaren 29a.- [EROSKI](#)k eta haren bezeroek 4.052 tona janari baino gehiago eman dituzte aurten, EAEn behar gehien duten kolektiboentzat. Kopuru horrekin 2.446 pertsonak jan dezakete urte osoan. Dohaintza horretatik, 3.536 tona baino gehiago EROSKI eman ditu 'Ez alferrik galdu' programaren barnean; programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk eta denda bakoitzaren hurbilean diren gizarte erakundeei emango zaiela. Programa hau gauzatzeko, EROSKI lanean aritu da Espainian gizarte erantzukizuna lantzen duten ehun bat erakunderekin.

Gainerako dohaintzak, 515 tona janari baino gehiago, EROSKIren, [Vegalsa](#)ren eta [Caprabo](#)ren saltokietan gaur arte Elikagaien Bankuaren alde egindako bilketa kanpainei dagozkie. Haien dendetatik 460 inguru --tartean dira supermerkatuak, hipermerkatuak eta frankiziak-- berriz elkartuko dira datorren hilaren lehenean eta bigarrean, ostiralarekin eta larunbatarekin, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak egindako Bilketa Handiaren elkartasun deialdira.

*"EROSKIIn konpromiso sendoa dugu gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin. Hain zuzen, kanpaina honetan Elikagaien Bankuei laguntzea aukera ezin hobea da konpromiso hori gauzatzeko, hori baita, kontsumo kooperatiba den aldetik, haren misioa", azaldu du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.*

Ez Alferrik Galdu programaren medioz, EROSKI FESBALEkin lan egiten du, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarekin. *"Eskertu nahi dugu EROSKI Elikagaien Bankuari aspalditik ematen dion laguntza. Konpromisoa erakusten du elikagaiak alferrik galtzeko, eta, hain zuzen, hori dago bi erakundeen oinarrian",*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

esan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioko presidentek, Nicolas Palaciosek.

### **Ohiko Janari Bilketa Handia asteburu honetan**

Ostiral eta larunbat honetako Elikagaien Bilketa Handiak bi modalitate izango ditu, produktuak ohiko eran fisikoki ematea eta txartel bidez jasotzea.

*"Frankiziek ohiko eran egingo dute produktuen bilketa. Bezeroek janaria erosi ahalko dute, eta dendetako bilketa guneetan utzi ahalko dituzte. Saltoki txikien kasuan, bakarrik txartel bidez bildu ahalko da, logistika kontuak direla eta"*, azaldu du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak.

Hipermerkatu eta supermerkatu propioetan, bilketa fisikoa ez ezik diruz kolaboratzeko aukera egongo da, 5 euroko edo diru gutxiagoko txartelekin. *"Bezeroek txartela horiek eros ditzakete ordainlekuetan. Bost euroko txartela erosita, adibidez, bi poto lekale eros daiteke, bi kilo pasta eta lau lata kontserbako arrainenak"*, esplikatu du Martinez Berriochoak. Kanpaina amaitzean, txartel bidez lortutako dirua Elikagaien Bankuari emango zaio, behar diren produktuak erosteko.

Aurreko kanpainetan bezala, EROSKI %7ko ekarpen gehigarria egingo du kanpainen bildutako guztizkotik. *"EROSKI n ohikoa denez, konpromiso honetan parte hartu nahi izan dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guztizkoaren zati bat batu diogu gehigarri gisa"*, esan du Martinez Berriochoak.

### **Hogei urte baino gehiago dira Elikagaien Bankuarekin lanean**

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko.

Gero, EROSKI martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKI eta FESBAlek janari freskoetara zabaldu zuten programa hau; horretarako, beharrezkoa izan zen donazio logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzen direla hartzaileengana.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Egindako lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, Urrezko Galburuaren sariarekin; hain zuzen, hori da erakundearen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diena.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)